

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

AHOLKULARITZA JURIDIKOA

275/20 prozedura laburtuan epea jartzea

Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako 1. Epaitegian administrazioarekiko auzi-errekurtsoa (275/20 prozedura laburtua) izapidetzen ari da. 16283221A nortasun-agiria duen pertsonak aurkeztu zuen errekurtsoa, Giza Baliabideen zinegotzi ordezkariak 2020ko ekainaren 26an emandako ebazpenaren kontra, zeinaren bidez aldi baterako kontratazioetarako zerrendak Lanbideren bitartez handitzeaz aurkeztutako gora jotzeko errekurtsoa ezezten baitzen. Hortaz, horretan interesdun direnei ager daitezen deitzen zaie, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikuluari jarraituz; bederatzi eguneko epea izango dute horretarako, lege beraren 23. artikuluaen ildotik.

Epe-jartze formalaren balioa izan dezan, hauxe eman eta sinatzen dut.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko azaroaren 5ean

Udal legelaria

MIREN JOSUNE IZQUIERDO CORRES